

PuLunPe

155. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA

Idazle
guztiok
zuhaitzekin
sekulako
zorra
dugu,
haiek
argitaratu
baitituzte
liburu
guztiak.

Joaquin Araujo poetak Orgi basoan irakurritako esaldia

Txetxu Biguri, Basaburuko argazkilaria



"Kasualitatez hasi
nintzen argazkiak
egiten"

Pulunpe aldizkari honen hirugarren orrialde honetan, normalean, herrietako banatzaileak ekartzen ditugu. Oso harro sentitzen gara aldizkaria banatzen laguntzen diguzuen guztion lanaz, eta hau da gure modu xumea hori eskertzeko. Hala ere, noizean behin beste eduki batzuk sartzen ditugu, zerbait berezia dugunean: hilabete honetakoa horrelakoa da; argazkilari batekin kolaborazioa egin dugu. Txetxu Biguri Aizarotzen bizi da aspaldi, eta askotan bere argazkiak argitaratu ditugu gurean.

Kontua da azkenaldian harrিতa geratu garena kaleratzen zituen argazkiekin: naturan dauden elementuak hartu eta haiek enfokatzeko, nolabait, testuinguritik kanpo geratu eta haien edertasun ikaragarria agerian uzten ditu Bigurik. Aldizkariaren zenbaki honetan berak eginiko zenbait argazki aurkituko dituzu azala eta kontrazalean, ezkerrean duzun bigarren orrialdean eta beste leku batzuetan ere. Galderatxo batzuk egin dizkiogu bere lanak hobeki ulertzeko:

Nola hasi zinen argazkigintzan?

Kasualitatea izan zen. Naturan ibiltzen nintzenean erakusten dizkigun formei erreparatu nien, eta gustuko dudako eskulturarako inspirazio iturri izan zitekeela pentsatu nuen. Beraz, forma horiek argazki-kameraren bitartez betiketza erabaki nuen.

Zeri erreparatu diozu argazkiak egitean?

Funtsean natur formetan jartzen dut arreta, handienetik txikienetara, maiz oharkabean pasatzen zizkigun forma horietan eta horiek transmititzen didatenean. Beti joaten naiz harritzen ahal nauen guztia jasotzeko prest.

Zer gomendio emanen zenioke argazkigintzan hasi nahi duenari?

Bera izateko, sentitzen duenak eramaten uzteko; aurreiritzirik gabe begiak ireki ditzala eta ikusten duenarekin harremanetan jar dadila, beste guztia berez etortzen da.

Argazki erakusketarik egiten duzu?

Normalean, ez; baina, urrian erakusketa bat egingen dut Apeztegi berrian, eta "naturaren formak" titulua izanen du.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan. Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci. Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO ABUZTUAREN 31AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

HORMARA

HORMARA

ERAKUSKETA

IRAILEKO AGENDA

"Maia

ERAKUSKETAK

Irailaren 19tik urriaren 7ra
"MADERA - ACERO" Antón Iraizoz
"marra ibiltzen den puntu bat da"

Irailak 9 - SAN URBANO GASKUE 19:30
ASTRONOMIA

Guirgillanoko behatoki astronomikoko lagunak hurbilduko dira San urbano baselizara haien teleskopioekin, eta izarrak ikusteko aukera izango dugu. Ekintza, astronomoari buruzko oinarriko hitzaldi batekin hasiko da lagungarri egingo zaiguna ondoren izarrak ikusteko. Nahi duenak bokata eraman dezake izarrekin kantuaren laguntzaz disfrutatzeko dugun bitartean afaltzeko.

Irailak 16 SAN URBANO GASKUE 18:00
LABURMETRAIAK ETA ILUSTRAZIOA
San urbanoko laburmetrai txapelketako itxiera saioa eta sari banaketa. Abuztuan egindako kanpaldiko bideoa proiektatuko da

eta gazteek haien esperientzia kontatzeko aukera izango dute. Laburmetraiak ikusiten ditugun bitartean Maite Mutuberria ilustratzaileak gazteek transmitzen dutenarekin mural bat marraztuko du.

Irailak 23 19:00 LARRAINTZAR
"Pertsona errefuxiatuekin"
Greziako errefuxiatu kanpamenduetan egondako Help-Na (Larraldi humanitarioetarako Nafarroako suhiltzaile taldea) elkar-tereko boluntarioekin solasaldia. Gaur egungo egoera, zer egin daitekeen inguruan ideia eta iritzi trukaketa...

Irailak 30 ERICE- ERIZEGOITI 19:00
"Errimatuz garenera arrimatuz", Oskar Estanga
Bertsolaritzaren teknika, gai pertsonalak eta estilo berrien inbestigazioan egindako kantu sorta da Errimatuz, inprobisazio tarteak ere izango dituelarik

Judo - Ultzama		Sumba	
Adina Edoak	9-12 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 800 1000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes 16:00-17:00 Asteartea Martes 16:45-17:45	Lehenengo	Astelehena Lunes - Asteartea Martes 16:00 - 17:00
Bigarrena	Astelehena Lunes 17:00-18:00 Asteartea Martes 17:45-18:45	Klasikak uniamen San hasten dira.	Las clases empiezan el 3 de octubre.
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Futbol sala - Futbol aretoa - Ultzama		Sumba infantil	
Adina Edoak	1000 1000	Adina Edoak	8-12 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 800 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes 16:45-17:45 Bigarrena Martes 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Asteartea Martes 16:45 - 17:45
Bigarrena	Astelehena Lunes 16:45-17:45 Bigarrena Martes 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Asteartea Martes 16:45 - 17:45
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Entrenamenduak irailaren 13an hasten dira. Las entrenamientos empiezan el 13 de septiembre. Taldeko uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Body Pump - Aerotono		Pilates	
Adina Edoak	1000 2000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Asteartea Martes 20:00 - 21:30	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 19:30 - 20:30
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Esku pilota - Pelota mano - Buruzgain Ultzama		Golf	
Adina Edoak	8-16 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 800 1000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves	Lehenengo	Astelehena Lunes - Asteartea Martes 16:00 - 17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Entrenamenduak irailaren 13an hasten dira. Las entrenamientos empiezan el 13 de septiembre. Taldeko uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	



Basaburuarra zara? Baliteke "herri txiki, infernu handi" saioa gureru etortzea. Parte hartu nahi al duzu? idatzi pulunpe@gmail.com helbidera!



KULTUR JARDUERAK ACTIVIDADES CULTURALES		Eskulanak - Manualidades	
Euskal dantzak		Adina Edoak 1000 1000	
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00
Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 17:00-18:00	Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 		<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Ehorzkin lanak - Bolillos y vainica		Abesbatza - Coro	
Lehenengo	Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 		<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Egurrezko talia - Talla de madera		Antzerkia - Teatro	
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 		<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Txalaparta		Altzariak zaharbertzea - Restauración de muebles	
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 		<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	
Somereneko jostuntza - Costura creativa		Somereneko jostuntza - Costura creativa	
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 		<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	



IRAILEKO AGENDA 2016

Iraizotz -do bestak

ORTZIALA VIERNES 9	LARRUNA SABADO 10	IGANDEA DOMINGO 11	ASTELENA LUNES 12
10:00 Homenaje a...	10:00 Homenaje a...	10:00 Homenaje a...	10:00 Homenaje a...
12:00 Telemusika...	11:30 Puzgumak...	11:30 Etxeak...	12:30 Mus. Inpresak...
13:00 Mus. Inpresak...	13:30 Mus. Inpresak...	13:30 Mus. Inpresak...	14:30 Mus. Inpresak...
14:30 Mus. Inpresak...	15:30 Mus. Inpresak...	15:30 Mus. Inpresak...	16:30 Mus. Inpresak...
17:00 Mus. Inpresak...	17:30 Mus. Inpresak...	17:30 Mus. Inpresak...	18:30 Mus. Inpresak...
19:00 Mus. Inpresak...	19:30 Mus. Inpresak...	19:30 Mus. Inpresak...	20:30 Mus. Inpresak...
21:00 Mus. Inpresak...	21:30 Mus. Inpresak...	21:30 Mus. Inpresak...	22:30 Mus. Inpresak...
23:00 Mus. Inpresak...	23:30 Mus. Inpresak...	23:30 Mus. Inpresak...	24:30 Mus. Inpresak...

Igeriketa - Natación		Eskubaloia - Balonmano	
Adina Edoak	1000 1000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:30-17:15	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 17:00-18:30
Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:30-17:15	Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 17:00-18:30
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 5 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Entrenamenduak irailaren 13an hasten dira. Las entrenamientos empiezan el 13 de septiembre. 	
Eskubaloia eskola - Escuela balonmano		Rugbi eta herri kirol eskola	
Adina Edoak	8-10 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 1000 1000	Adina Edoak	8-10 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 500 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:00-17:00	Lehenengo	Osteguna Jueves 16:00-17:00
<ul style="list-style-type: none"> Entrenamenduak irailaren 20an hasten dira. Las entrenamientos empiezan el 20 de septiembre. 		<ul style="list-style-type: none"> Entrenamenduak uniamen San hasten dira. Las entrenamientos empiezan el 7 de octubre. 	
Berrantolaketa - Reordenación de la postura		Spinin - Ultzama	
Adina Edoak	1000 2000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 18:00-19:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 19:00-20:00
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	

Patinaje		Xakea - Ajedrez - Sustraiak Guraso Elkarte	
Adina Edoak	8-12 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 1000 1000	Adina Edoak	8-10 Ikasturtearen Kutsa Gaiturako 800 1000
Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 16:30-17:30	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 19:15-19:45
Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 17:00-18:00	Bigarrena	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 19:15-19:45
<ul style="list-style-type: none"> 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 4 y el 3 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 5 de octubre. 	
Trail running		Spinin - Ultzama	
Adina Edoak	2000 3000	Adina Edoak	1000 1000
Lehenengo	Osteguna Jueves 18:30-20:00	Lehenengo	Astelehena Lunes - Osteguna Jueves 19:00-20:00
<ul style="list-style-type: none"> Taldeo eta banakako running entrenamenduak, hasiera maila edo hebetasiko. Entrenamientos en grupo y personalizados de running, inicación e ingreso. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 5 de octubre. 		<ul style="list-style-type: none"> Klasikak uniamen San hasten dira. Las clases empiezan el 3 de octubre. 10tik 15tik gutxienez. Grupos mínimo de 10. 	

Nolako etxebizitza berriak behar ditugu?

Etxebizitza gure inguruan arazo edo kezka den ez dago guztiz argi. Batzuek badute etxetik joateko beharra eta herrian bertan edo ondoko herriren batera joateko beharra, baina beste askok ez. Azkenaldian hainbat etxebizitza proiektu ezagutu ditugu gure bailaretan, eta orain, ematen du lehentasuna biztanleek nahi dutena identifikatzea dela. Azter ditzagun adibide batzuk:



ULTZAMAKO INKESTA

Uda baino lehen, Ultzamako Udalak etxebizitzaren inguruko inkesta bat bidali zuen etxe guztietara. Biztanleek dituzten beharrak eta interesak identifikatzeko balioko lukeen inkesta bat da, gerora proiektu urbanistikoak diseinatzerakoan kontuan hartzeko.

Udalak ez ditu nahi beste inkesta bueltan jaso, eta, beraz, parte-hartze hori gabe zaila da ondorio sakonik ateratzea, nahiz eta ideia batzuk ematen dituzten jasotako erantzunek.

Etxebizitzaren tipologia eta kokapena:

-Familia bateko etxebizitzak edo baserri motakoak dira eskatuenak, eta Babes Ofizialeko Etxebizitza gisaa.

-Kokapenean banaketa dago, batzuek beren herrian nahiko lukete, eta beste batzuei ez zaie inporta Ultzamako beste herriren batera joatea.

Alokairua:

-Gehienek jabetza propioaren alde egiten dute, baina erosteko aukera ematen duen alokairua ere nahiko ongi baloratua izan da.

Udal politikak:

-Erantzunetan, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea eskatzen da, baita etxebizitza berriak egitea ere, eta etxebizitza hutsak dituztenei gehiago kobratzea.

-Etxebizitza berriak eraikitzerako orduan dauden zailtasun burokratikoak aipatzen dituzte, eta etxebizitza zaharrak berritzeko laguntzak eskatu ere.

Bestelakoak:

-Inkestari erantzundakoetako batzuek diote haien herrietan edo inguruan bizitzekotan etxebizitza bakarretan biziko liratekeela, pisu batean bizitzeko Iruñera joanen liratekeela.

MIKEL, ULTZAMAKO ARKITEKTOAREN KOMENTARIOA:

“Udal arkitekto gisa, lehenbizi hirigintza Planaren funtsa esplikatzea beharrezkoa dela deritzot. Plana ez da lursail jabeek beren etxea egiten ahal duten ala ez finkatzeko dokumentua, herria egiteko bidea baizik, guztiona eta guztiondako izango den espazioa eta herria definituko duena.

Horrez gain, hirigintza Planak guztion beharrei erantzuteko bi atal garrantzitsu azaltzen ditu:

-Babes ofizialeko etxebizitzetarako lursailak aurreikustea.

-Lursail urbanizagarri berri guztien aprobetxamenduaren %10 Udalari ematea.

Ultzamako Planean, etxebizitza berrien %30 babesturik jasotzen da, baina egia da dena herri handienetan kokatzen dela, sustatzaile pribatuen esku.

Baina honi aurre egiteko, Udalak baditu moduak, legez tokatzen zaion %10 nola jaso eta nola inbertitu, alegia, eta aukera ezberdinak daude:

-%10 lurretan jaso eta Udalak sustatu etxebizitza berriak (ekonomikoki ez da bideragarria gaur egun) edota erosleek kooperatiba bat sortu eta

honi utzi lursaila beraiek susta dezaten.

-%10 dirutan jaso, hutsik dauden eraikinak birgaitu eta merkaturatu ipini (alokairu sozialean edo salmenta babestuan, bai pertsonalki edo kooperatiba moduan).

Guzti honen inguruan hausnarketa sakona eman beharko litzateke, lursail berrien kontsumoa, hutsik dauden eraikinen berreskuratzea, bertako biztanleen beharrak, beren herritik bes-

te herri batera joateko asmorik ba al den, solairuzko etxebizitza batean bizitzea nahiko al luketen (nahiz eta praktikan beti solairu batean bizi), etab.

Beraz, nahiz eta maiatzeko tailerrean parte ez hartu, Udalak atek irekiak ditu denen eskaerak kontuan hartu ahal izateko, bai zalantzak argitzeko kontsulta bidez baina bereziki betetzen ahal diren inkestak udaletxera helaraziz.”



BASABURUKO ADIBIDEA

Bi proiektu handi izan ditu Basaburuak azkenaldian. Aizarozkoa da proiektu nagusia, ezereztik herri berri bat sortu zuelako kasik, Udalaren apustu gisa. Itsasokoa da bestea, hau herriak berak egin zuen, etxebizitzak eraiki eta Itsasoko biztanleendako eskura jarri eraikuntzak behar izan duen gastu berean.

Ondorio gisa, Udaletik kontaktatzen digute Basaburuak behar zuela planen bat, inork ez baitzuen ezer saltzen, ezer alokatzen, eta beraz ez zegoen aukerarik bertako jendearendako etxetik joateko. Azkenean, Aizarotza joan diren gehienak kanpokoak izan dira, eta argi dago beti integrazioa kostatzen dela, baina positibotzat jotzen dute.

Itsasokoek aldiz, argi zeukaten herrikoendako izan behar zela soilik. Zortzi partzela ziren, eta horietatik hirutan bizi dira jada, baina besteak eraiki gabe dituzte oraindik. Alde positiboa da herriko gazte eta ez hain gazteek etxetik joateko aukera izan dutela, eta herrian bertan geratu direla.

Proiektu berri bat dago Jauntsaratsen, udaletxeko bigarren solairuan bi etxebizitza berritzen ari dira alokairu sozialean eskaintzeko. Hemendik gutxira aterako da eskaintza.



IMOZKO ADIBIDEA

Muskizko proiektua da Imozko udalak izan duen azkena. Babes Ofizialeko hiru etxebizitza egin berri dituzte zaharberitutako etxe batean. Erraztasunak eman zituzten bailarako jendeak alokatu zitzan etxebizitza horiek, baina azkenean ez zuen bertako inork izena eman eta kanpotik etorritakoek hartu dituzte.

Ondorioak ere ateratzen dituzte hemendik. Ematen du bertako jendeak ez duela etxebizitza arazorik, gehienak baserri edo etxe bakar handietan bizi direlako, eta badute nahiko toki gazteek gurasoekin etxe berean bizitzeko.

Beste aukera batzuk ere ikertzen ari da udala, besteak beste etxe zaharrak berritu edo etxe handiak zatitzea. Dena den planifikaziorik ez dute eginda, hausnarketa bai eta garapen helburuak markatu ere bai, baina oraindik ez dira hasi kontu berrietan.

Autobus zerbitzu irekia lehenengo aldiz Basaburuan Ikasleek eta beste herritarrek garraio publikoa izanen dute



Kontua, sinplea badirudi ere, urte frankoz luzatu da burokrasia dela eta, "legez ez da erraza eskola garraioa eta garraio publikoa batera joatea" esan digute Basaburuko udaletxean.

Arazoa da gurea bezalako eskualdean ezinezkoa dela bi garraio linea desberdin izatea: ikasleendako autobus zerbitzu bat eta besteendako beste bat. Hurrengo ikasturtea hasten denean, errealitate bihurtuko da errebendikazio zahar hau.

Udal arduradunek onartzen dute hala dela: "Basaburua aitzindaria izango da autobus garraio linea "nahasi" bat izaten". Urtetako eskaerei "eta mendialdeko herri eta bailaren errebendikazioei" erantzunez, azkenean lortu da institutu eta unibertsitateetako ikasleek eta beste edozein herritar garraio komun bat izatea.

Heldu diren egunetan bilera batera deituko dituzte ikasleen familiak eta haiekin batera diseinatuko da garraioaren ibilbidea eta nondik norakoak. Udaletik, halere, pare bat datu eman dizkigute: "goizean goiz aterako da autobusa eta bazkalorduan" itzuliko da, eta ikasleak ez direnek ordaintzeko modua "bono" bidezkoa izango da. Gai interesgarria, heldu diren hilabetetan jarraipena egingen diogu.

Gobernuak 6 milioi inbertituko ditu mendialdean

Helburua "ehun ekonomikoa eta zerbitzu publikoak hobetzea"



Cederna Garalurrek eta Nafarroako Gobernuak beste hitzarmen bat sinatu berri dute. Honi esker datozen urteotan 6 milioi euro inbertituko dira "mendialdeko ehun ekonomikoa eta zerbitzu publikoak hobetze aldera, erakunde publikoek eta ekimen pribatuak sustaturiko proiektuak lagun-

tzen". Zentzu honetan, mendialdeko "2014-2020 PDR" deitutako plan berriak jarduera ekonomiko eta enplegua sortuko duten ekimen "produktiboek" alde egingo duen apustua azpimarratu nahi dute Cedernatik. Honekin batera, proiektu "ez produktiboak" ere lagunduko dira, hala nola, zerbitzu edo ekipamendu publikoak.

Laguntzak jasotzeko, proiektu hauek honako ardatzak izan beharko dituzte: populazioaren mantentze eta finkatzea; Lehen sektorea eta basogintza; baliabide naturalak; zerbitzuen garapena eta ondarearen balioa sustatzea; enpresen konsolidazioari laguntza eta enplegua sortzea.

Diru-laguntzen lehengo deialdia 2016ko azkeneko hiruhilabetean argitaratuko da.

Publikazio bidezko debate politikoa Ultzaman

Azken hilabeteetan Ultzamako alderdi politikoen artean dagoen debatea eremu desberdin batera eraman da: gutun, panfleto edo prentsa ohar bidez zabaldu baita uda honetan. Ez da bide berria, eta alderdi bakoitzaren ideiak biztanleengana hurbiltzen diren heinean, positiboa da.

Bailara horretan interes gehien pizten duten gaiak buruz hitz egiten dute AU eta EH Bilduk. ekainaren erdia aldera, Agrupación Ultzamak aldizkaritxo bat etxer etxe banatu zuen, "Un año de EH Bildu en Ultzama" izenburupean. Aste batzuk geroago, publikoa egin zen alderdi abertzalearen erantzuna.

Gure webgunean bi komunikatuak zintzilikatu ditugu. Gogora ezazu, www.ametza.eus

Ur arazoak Erason eta Muskitzen



Bi herri hauetan edaten den ura bi urmaeletatik ateratzen da eta herrikoek esan digutenez "sartzen dena baino gehiago" kontsumitzen aritu dira. Horrek esan nahi du egoera ez sostengarrian daudela. Udan ur kontsumoa handitzen da; baratzen ureztatzea, igerilekuak betetzea... eta euri kopurua gutxitzen da.

Etxeko txorrotatik ateratzen den ura bera da, ez dute moztu, baina egoera kezkarrian aurkitzen dira.

Larre eta basoetan lehortea sumatu dugu, baina deigarria iruditu zaigu, zenbait basoetan zuhaitzetan hosto lehorrak edo "zaharrak" bezalakoak ikustea, ura falta dela eta "zuhaitzak estresatzen dira eta hori hostoetan ikusi daiteke", komentatu digute.

Aldaketa klimatikoa errealitate bat dela geroz eta argiago dagoen kontua da, eta gurean ere sumatzen ditugu, geroz eta gehiago. Lehenbailehen hartu beharko ditugu neurriak.

Historiako urte beroena izan zen 2015, behinik behin 1880. urtean datuak biltzen hasi zirenetik. Aldaketa klimatikoan gurean aurtengo neguan gogor sumatu genuen; lehortea, prozesionaria izurritea pinuetan, zizak denboraldiz kanpo ateratzen... udan, ohikoa den bezala lehortea areagotu da eta batez ere Imozko Erason eta Muskitzen jasan dute.

Diru-laguntzak euskara ikasleendako



tateak hartzen duen eremuan (Ultzama aldea barne) euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren herritarrei zuzendua da diru-laguntza hau.

2015eko irailaren 1etik 2016ko abuztuaren 31 arte egindako ikastaroen matrikula gastua da Mankomunitateak diruz lagunduko duena: ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak. Informazio gehiago www.iparmank.eus webgunean eta Ultzamako udaletxeko euskara zerbitzuan (948305134) izanen duzue.

Orainoan, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak banatuko dituen diru-laguntzen berri emanen dizuegu. Mankomuni-

Diru-laguntza eskaera aurkezteko epea irailaren 15era bitarte da, eta guztira 12.185 euroko aurrekontua du Mankomunitateak ikasle guztien artean banatzeko.

Zuhaitzak jota, zaurituta



ari zela. 72 urteko gizonak zauri txikiak izan zituen, ezer larririk ez, belaunean luxazio bat izan zuen.

Era nahasi batean jaso zuen Diario de Navarra egunkariak gertatutakoa, bestalde, gertakaria jaso zuen egunkari bakarra.

Gizona Jauntsaraskoa dela zioen egunkariak, baina Gerendiaingoa da. Eta albistea ilustratzeko Iha-bengo argazki bat jarri zuten, argazki oinean "Jauntsarasko herriko bista orokorra" zioelarik.

Argitzeko, beraz, gizona Gerendiaingoa da, eta Jauntsaratsen gertatu zen istripua.

Abuztuaren 14an izan zen ezbeharra Jauntsaratsen. Gerendiaingo gizon bati zuhaitz bat erori zitzaion gainera basoan, egurra moztzen

19 urte triatloian!



Larraitzargo igerilekuan, irabazleen irudia

Aurtengo abuztuaren 15ean, urtero bezala, Ultzamako kross triatloia izan genuen. Hemeretzi ekitaldi izan ditugu jada, eta beti bezala giro ezin hobea izan zen aurten ere. Aurtengo lasterketa astelehenean izanda, pentsatzekoa da jende askok asteburu luze hori kanpora joateko probestu zuela, eta parte hartzea ez zen handiegia izan. Dena den, 22 kirolari aritu ziren

proba herrikoian, eta 43 federatuen saioan.

Leurtzan igeri egin, bizikleta hartu, 4 km gora eta 11 behera Larraitzarreraino, bertan bizikleta utzi eta korrika azken kilometroak. Hori izan zen eginbeharrekoa, eta eguraldia lagun, gustura ibili ziren triatletak.

Sailkapenari dago-kionez, etxean geratu zen gizonezkoen txapela. Martin Irazotz

ultzamarra izan zen garaile federatuen proban; bigarren, David Latasa txirrindulari profesional ohia; eta, hirugarren, Iker Beitia. Emakumeetan lehena Elisa Ester izan zen, sailkapen orokorrean 27. eginda. Bigarren Irantzu Beloki izan zen, eta hirugarren Lucia Oskotz.

Proba herrikoian, emakumezkoan irabazlea gurea izan zen, Ainhoa Berasain, eta

bigarren Izaskun Rebole; gizonezkoan Mikel Merino irabazle eta Mikel Iribarren bigarren. Aipatzekoa da, gainera, Ainhoa Berasain 6. izan zela sailkapen orokorrean, gizon eta emakumeak batera kontatuta.

Datorren urtean gehiago izanen dugulakoan, eskerrak eman beharko antolatzaile guztiei eta bereziki Asier Uriarte kirol teknikari nekaezinari!

Orokietako ostatua zabalik



Azkenaldian ostatuek itxi eta ireki egin dutenaren berri eman dizuegu. Deskarge itxi, Beuntzako ostatua itxi, Beruetekoa eta Aiarozkoak ireki... Orokietakoari dagokionez, bada

denbora itxi egin zutela lehen zeuden Yaiza eta Amaiak. Oraingoan Basaburuko Ernaizu kooperatibako emakumeek ireki dute.

Orokietako festetan egin zuten irekiera ekitaldia. Ordutik lanean dihardute egun osoz irekitzen eta asteburuetan bazkariak emanez. Facebook orrialdea ere ireki egin dute!

Ez dute ostatua soilik hartu, etxebizitza osoa baizik, eta ez dute alferrik erabiliko espazio hori guztia. Azkenaldian mundu osoan modan dagoen proiektu bat daukate eskuartean.

Momentuz ez dugu besterik esanen, gutxika joanen baitira proiektuari forma ematen, baina informazio gehiago emanen dizuegu aurrerago. Ziur sorpresa gustatuko zaizuela.

Satorrekin gorabeherak

Uztail bukaeran Odietako bizilagun bat inputatu zuten satorrak akabatzeko tranpa dispartatu zitzaionean. Foruzaingoak baimenik gabeko arma izateagatik delitua egotzi dio odietarrari. Zoritxarreko mugimendu batean, maneatzen zegoen tramankulua oinean dispartatu eta larriki zauritu zen gizona.



Tranpa hau ehizarako erabiltzen diren kartutxoekin funtzionatzen du eta foruzaingoak populazioari gogorazi nahi dio "Nafarroako iparraldean nahiko ohikoak badira ere, tranpa hauek izatea debekatutako su armak" direla eta hauen erabilpena "delitua" dela, duten arriskuagatik "lesio larriak" sortu ahal dituztelako.

Gurean ez da halako istripu bat gertatzen den lehenengo aldia. Landa eremuan bizi gare-



nok badakigu satorrak baratzean sartzen direnean kalte handiak egin ahal dituztela, halere, ilegalak eta arriskutsuak ez diren metodoen alde egin beharko.

Betidanik aitzurra edota eskopeta erabili badira ere, denbora gehiegi itxoin behar eta, tira, batzuetan ez dago halakorik. Zepoak ere betidanik erabiliak izan dira, pozoia batzuetan ikusi da... Badaude beste zenbait metodo berriagoak, hala nola bibrazioak emititzen dituen aparatua: 40 metrotan satorrak uxatzen omen dituen tutua da.

Halako bat etxean ere egin ahal da beirazko botilak erabiliz. Sarean duzu informazio gehiago.

Erremedio naturalak bilatzea ere aukera interesgarria da. Gure partetik bi landare aurkitu ditugu, estramonioa eta euphorbia lathyris ize-neko beste bat, euskaraz tartiku deitzen diotena, esne belarraren familiakoa. Biak toxikoak dira eta satorrek ez dute batere maite. Gogoratu beharra

dago, beraz, bi landare hauekin arretaz ibili behar dela.



Bukatzeko, badaude beste teoria desberdinak dituztenak Frantziako Gilles Clement idazlea kasu, haren "El jardín en movimiento" liburuan bara tzearen ikuspegi desberdina ematen da: naturaren dinamika propioak errespetatzen dago oinarria, gure estetika eta orde-na alde batera utzita.

Euskara hutsezko udalekuetara joan direnendako diru-laguntzak



bitartean aukera dago eskaera egiteko.

Diru-laguntza jasotzeko, udalekuak euskara hutsezkoak izan behar dira, eta uda garaian 5-15 egun bitartekoa izatea. Informazio gehiago jasotzeko, zein eskabide orria eskuratzeko www.iparmank.eus webgunean begiratu, Imozko, Basaburuko edo Odietako udaletxera joan edo Ultzamako udaletxeko euskara zerbitzuaren (948305134) bulegora joan zaitezketekete.

Basaburua, Imotz, Odieta eta Ultzamako euskara zerbitzuak emandako diru-laguntzak eskatzeko epea irekita dago. 2016. urtean euskara hutsezko udalekuetara joan diren haur eta gazteei zuzenduak dira diru-laguntzak, eta irailaren 30era

Euskara zerbitzuak, guztira, 2.000 euroko aurrerontua dauka udalekuetako diru-laguntzetarako, eskatzen duten haur eta gazteen artean banatzeko.

Eduki interesgarritz betetako **webgune** berria Santurberena



Odietako baselizaren kultur "zaharberitzea" ikusgarria izaten ari da. Azkeneko hilabeteetan mugimendu eta ekimen anitzak antolatu dituzte eta horiek guztiak nolabait koordinatzeko eta jendea informatuago izateko gune berri bat ireki dute sarean.

Helbidea www.ermitanurbano.com da eta bertan aurkitu dezakezu informazio interesgarria:

baselizaren historia, antolatzen diren ekimenen informazioa, argazkiak...

Aurkitu dugun edukirik interesgarriena, gure iritziz, soinu formatuan dagoen elkarrizketa zahar bat da: Euskalerrria irratiko Kike Diaz de Ultzurrun kazetariak garaiko Gaskueko Santurberko ermitauarekin 15 bat minutuko solasaldi interesgarri bat izan zuen. Odietako Latasan aurreko

mendeko 80. hamarkadan grabatu zuten. Bertan, Mariano Zigan-dak umorez eta alai kazetariaren galderei erantzuten die. Hizketaldian, Gorrontxenea etxeko ermitau zaharrak hainbat kontakizun eta pasadizori buruz hitz egiten dio mikrofonoari: Herriz herri irudiarekin nola joaten zen, hasieran bizikletan eta geroago motorran... Istorio interesgarriak lehengo garaia hobekito ulertzeko.

Ez genuke aipatu gabe utzi nahi Euskalerrria irratiko langileek elkarrizketa hori berreskuratzeko egindako lana: magnetofoi bobina zaharrak hartu dituzte eta makina zaharrak berriro martxan jarritz, edukiak digitalizatu dituzte. Komentatu digutenez, material zaharra "aireatzen" joango dira berriro ahala.

Elkarrizketa entzuteko: www.ermitanurbano.com eta www.ametza.eus

Ireber eguna **eguraldi** onarekin

Urtero bezala, aurtengo abuztuan Ireber Egurenaren beste ekitaldi bat ospatu zuten basaburutarrek. Aurten jende pila bat elkartu zen, 20 eta 30 lagun artean. Berueteko ostatuan gosaldu eta hamaikak aldera mendian gora abiatu ziren.

Arrarats aldera jo zuten lehenbizi, gero Otsola ingurura joan eta hortik Ireber gaina ailegatu ziren. Bi ordu eta erdi inguru eman zuten eguraldi ederra zutela. Kaskoan denbora pixka bat eman zuten eta hor-

tik Jauntsarasko eskolaraino jaitsi ziren bazkaltzera. Untxiak erre eta akordeoia lagun arratsaldeko zazpiak arte edo egon ziren mahaiaren inguruan, batzuk geldi beste batzuk dantzan.

Ikusten denez, mendia ez da izaten argaltzeko kirola. Gosaldu gogor egin zuten abiatu baino lehen, ibiltzeko indarrak izateko, eta gero ederki berreskuratu zituzten indarrak untxiarekin, berreskuratu eta soberan utzi ere, badaezpada.



Irudi batean

Basaburuan **osasuna** zaintzen



Osasun etxean lan handia omen dute, eta lana gutxitzeko jendeak bere osasuna zaintzeko deia egin dute. Ez da horrela, baina gure burua gehiegi zaintzen ez dugula jakina da. Udan ere ez, eta osasuntsu egoteko programa bat abiatu du Basaburuko Udalak, Nafar Gobernuaren diru-laguntzarekin.

Bizikleta martxa: 3-6 urte bitartekoak bizikletan ibil daitezten eta segurtasunez egin dezaten ekitaldi bat antolatu zuen Udalak. Haurrei kaskoak banatu eta hainbat gomendio eman zizkieten, eta hori eginda bueltatxo bat egin zuten Basaburuan.

Paseoak: Zaharragoendako ere ibilbide osasuntsuak antolatzen ari dira, hilabeteko azken igandeetan. Bas-

aburuko hainbat lekutatik ibilbideak prestatzea da asmoa, Tipi-taupa izena jarri dioten ekimenean.

Adinduendako: Urte amaiera arte hainbat ekimen antolatu nahi dituzte adinduek osasuna zaindu dezaten: Menopausiari buruzko hitzaldiak, erorketak prebenitzeko ikastaroak, osasunaren inguruko hitzaldiak, emakumeendako txangoak...

Pasaderetako eguna: Udan zer hobe Jauntsarasko pasaderetan bainu freskoa hartzea baino. Uztailaren 17an bainuaz gozatzeaz gain ipuin kontalaria, parrillada, musika... izan zuten, eta osasuna zaintzeko gomendio zenbait jaso ere: beroaren aurrean nola jokatu, larruazala eguzki izpi kaltegarriez babestu eta oinezkoak errepi-dean segurtasunez ibiltzeko gomendioak.

Espero dezagun ekitaldi eta gomendio sorta honekin jende gutxiago joan behar izatea osasun etxera. Ikusiko dugu. Zaindu!

Haur **eskolak** hastear dira



Aipatzekoak dira Etxalekun dagoen Ttikiena eskolak izanen dituen aldaketak. Proiektuaren hasieratik zegoen Ainhoa Martiarenak utzi egingen du urte batez, eta lehen jardunaldi erdian zegoen Jaione Beunza lanaldi osoan egonen da. Eta berarekin batera Julen Beunza hasiko da.

Guraso elkartetik adierazi digute aurten ez dela haur berririk sartuko Ttikienan, eta nahiz eta joan zen urteko haurrek jarraitzen duten zailtasunak izan ditzakete heldu den urtean haur berriak sartzen ez badira. Beraz, dei egingen dute Basaburuko eta Imozko guraso berriei Ttikiena proiektua babesteko eta haien haurrak bertara eramateko.

Bitartean, kurtso berri on XinbiliXanbalan eta Ttikienan aurten egongo zareten txikitxoei!

Urtero bezala, irailaren lehenengo eguntan hasten dira **gaztetxo**enak haur eskoletan. Egun hauetan hasiko dira XinbiliXanbala eta Ttikiena haur eskoletara joaten, kasuren batean haur berriak, baina joan zen urtekoak ere bai.



Joxe Jabierrera

Ikus-entzunezko **asteburua** Santurben

Kanpaldia, laburmetrai tailerra eta adituen hitzaldiak antolatu zituzten

Lurralde honekiko lotura handitzea edota sortzea. Hurbilekoa ezagutzean, gaur egungo mundu globalizatua ulertzeko aukera handitzen da. Helburu orokor horretara ailegatzeko hamaika bide egon daitezke, eta horietako bat sorkuntza da, eta horren barruan, zergatik ez, ikus-entzunezko sorkuntza. Azkenaldian gurean prestatu den kultura proiektu ahaltsuena aurkezten dizuegu.



Dozena bat nerabe, antolatzaileak, laguntzai-leak, adituak, publikoa, musikariak... Santurben bildu ziren abuztuko azkenurreko asteburuan. "Ilargi beteari kantuak" deitutako kultura programan txertaturik, eskualdeko jendeari zuzendutako ekimena zen.

Praktikoki hitz eginda, film laburrak prestatzen aritu ziren asteburu osoan, partaideak Baselizan bertan lo egiten geratu ziren eta zenbait adituen laguntza izan zuten.

Asteburuaren ondoren, haien lanak prestatzen arituko dira eta irail erdialdean aurkeztu eta jendaurrean proiektatuko dira. Gure aldetik, film laburrak zabalduko ditugu, www.ametza.eus web-

gunean ipiniz. Antolakuntzatik kontatu digutenez, asteburu osoan "a tope" egon ziren, lan da lan, lan praktikoaz gain, film labur bat egiteko formazio teorikoa izatea garrantzitsua da eta horretarako teknika eta lan tresnak erabiltzeko saio batzuk egin zituzten.

Larunbateko lehenengo hizlaria izan zen hurrengo. "Lehen nozio batzuk eman zizkigun eta polita iruditu zitzaigun nola ofizios harakina bada ere, ikus-entzunezko munduan autodidakta dela eta nolabait, Asier Larrinaga, proiektuaren laguntzailearen hitzetan, "gaur egun ez dela zertan derrigorrezkoa lizentziatua izan halako saltsatan sartzeko".

XABIER PERURENA, EKOIZLE ETA AKTOREA:

"Oso gustura egon nintzen"



Lanez gainezka harrapatu dugu Xabier. Hara-tegian ezin gurekin hitz egin eta jatetxe batera banaketa egitera zihoala, labur-labur egin du gurekin telefonoz Santurben izandako esperientziak:

"Oso gustura egon nintzen, eta espero dut nerabeak ere horrela egotea". Leitzarra oso lanpetua dabil azkenaldian: telebistan aktore lanak egiteaz gain, ekoizpen enpresa txiki bat antolatu du, Harrixfilm; asteburua probestu eta ikastaroaren inguruan "trailer" bat filmatu zuen.

Hurrengo asteetan egingo da material horren aurkezpena, orain Sevillara baitoa momentuz "sekretua" den filmazio batera, nahiz eta zurrumurruek Urtain boxeolariaren paperean kokatu prestatzen ari den film batean.

Eskainitako hitzalditxoari buruz, Xabierrek esan digu: "3 ordu eskas egon nintzen, hasierako 20 minutuetan halako bakarriketa izan bazen ere, gero kamerak atera eta jolasean hasi ginen, guztiondako oso erakargarriak baitira trasteak".

Perurena abizenaren pisua ongi darama Xabierrek, eta umiltasunez esan digu "egunero ikasi beharreko ofizioa dela ikus-entzunezkoarena".

MARIA LARRAÑETA, ANTOLATZAILEA:

"Honek jarraipena duen galdetu digute"



Haurren bila Urritzako ludotekara bidean harrapatu genuen hitz egin genuen azkeneko aldian Maria. Proiektu guzti honen atzean bera eta Izaskun Altuna izan ditugu: hilabete luzetako lan handia egin dute biek, ilusioz beterik. Berak emanen digu beharrezko azken datuak.

Ekimen guztia oraindik bukatua ez badago ere, "oso pozik" daudela esan digu, eta partaideen gurasoek ere "oso erantzun positiboak" eman dizkietela esan

digu: "Ea honek jarraipena duen ere galdetu digute, espero dugu hala izatea".

Ekimen honen bukaera irailaren 16an izanen da, Baselizan bertan. Nerabeek egindako hiru film labur aurkeztuko dituzte, arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Horretaz gain, Maite Mutuberriak mural parte-hartzaile bat margotuko du "partaideek kontatzen dutenaren arabera" eta Xabier Perurenak egindako bideoa ere ikusgai izango da.

Aurretik aipatu bezala, 3 laburmetrai aurkeztuko dira, taldeka egindakoak, fikziozkoak. Egun hauetan etxean editatzen ari dira. Kanpaldia bukatu eta 2 aste epea izan dute bukatzeko; halere, berriz elkartu dira Santurben Pablo Irabururen laguntzaz, antolakuntza hobeki eramateko. Mariak esan digu "gidoia egitea da lan gehien hartu duena, azkar-azkar grabatu nahi zuten, eta Pablok esaten zien dena ondo pentsatzea oso garrantzitsua dela, bestela gero lan handia hartu behar dela zer sartu aukeratzeko".

ASIER LARRINAGA, PROIEKTUAN LAGUNDU DU:

"Hemendik, lan bikainak egindako jendea pasa da"



na bat gazte hurbildu dira. Gorabehera batzuk izan ditugu, bata sukarrarekin zegoela, baina azkenean elkartu da koadrila ederra". "Gustura" egon zirela dio Asierrek, "trinkoa ere izan da, ez pentsa, maila oso interesgarria izan dugu etorri diren hizlarietara, oso aukeraketa egokia egin dute antolatzaileek. Hemendik, lan bikainak egindako jendea pasa da, adibide bakar bat ematearren Santurbeko proiektu honen ikonoa den argazkiaren egilea etorri zen, gau argazkilaritzan aditua". Irudien konposizioan eta argazkilaritza urbanoari buruz hitz egin zuten.


Unai Otegi eta Edurne Arzoz, (irudian) musikaren inguruan egon ziren hizketan; artisaua eta musikaria dugu Otegi eta Edurne harpajole "izugarria" da. Baseliza barruan egin zuten kontzertua, bertako musikaz baliatuta "txundituta" utzi zituzten bertara hurbildutako jendea, "oso giro berezia" sortu baituzten.

Proiektu handiago batekin du zerikusia honek, "Ilargi beteko gauen" proiektuarekin hain zuzen. Gazteendako tailer bat da hau eta doze-

Eta igandean, kontzertuak



Asteburua modu ezin hobean bukatzeko, kontzertu interesgarri bat antolatu zuten. Bertara hurbildu ginen Leihotikan talde ezagunaren emanaldi akustikoaz gozatzeko, Beltxaren taldearen "tradiziozko" kantuak entzutea eta bukatzeko Dinbayá afrikar perkusio taldea. Arratsaldeko pasadizoa hauekin batera etorri zen: Iruñean zenbait dantbor ahaztu eta dantzariak jendearekin batera afrikar dantzak "inprobisatzen" aritu ziren, hori bai, estilo dotorearekin.



Artzai zorienttsue

Artzain ofizioa ere galtzen ari da. Beti ezagutu dugun artzaina, bere borda, soro, larre, bukatzen ari da. Artzaingoa bere azken hatsa ematen ari da. 100 eta 200 buruko artaldeak bukatzen ari dira eta horien orde, han eta hemen, artegi handi batzuk eraikitzen ari dira. Ardiak ez dituzte mendira bidaltzen. Hala ere, oraindik, han eta hemen, badira artzainak, edo artzain izan direnak. Eta nahi genuke gure aldizkari honetara bakarren bat edo bertze ekarri. Gaurkoan Alkozko Pinttoneko Joxe Miel Oartzun Balda dakargu, artzain zorienttsue.



BIZITZERA SALTO

Noiz artio yoan ziñen eskolara?

Igorri nai zireten, baño nik nerera. Hamabi-hamairu urtetan, fuera lekutu. Ni mendire, arditia.

Baña zuek e'ziñuten ardiak. Zenbat urtetan yarri ziñuzen ardiek?

Ez, ez, baña Urrozтик erosi zittuen aitek. Eta gero segiden sald'iar zittuela. Eta nik ezetz, biar nuela bordara yoan; eta hogeitabi ardiakin yoan nitzen. Hoi, hamabi urtetan.

Baziñuten borda?

Bai, bai, bagiñuen, baña dena itxisure, deseñe zen. Arreglatu giñuen gero eta hantxen bizie, gus-tora. Iñok manatzan ez, polliki, arron gustora bizi. Eta borda arreglatu biar, sagaliak, ganbelak...dena, ez baitzen deus.

Aitek erakutsiko zizun

Batre, e'tzekien batre. Erran zien: Nik ez diet erakutsiko. Nik ikasi, nerez, nerez.

Ta lan hoietan bakarrik

Ez, ez, laguntzen zireten anaiek-eta. Txaolatto itten eta...Lenbiziko sosa i'nuelaik, txaola bordan kontra ni eoteko.

ETA BIZIE AURRIA ATRA

Eta zu ardiekin txoraturik

Bai, enamoraturik. Eta hamazazpi urtetan, kusi nuen ardiek eerki mantenatzen ziela mendien, ba-

zela bazka, bazela ure. Kusi nuen soluzionatuik zegoela nere bizie. Izugarritzko poza hartu nuen hori kustian.

Ta nola yoan ziñen artaldia bizkortuz?

Pixke-pixke, 19 urte betetzerako 120-130 buruko saldoa nuen. Banakien hazten banituen salduik zaudela. Frantsak beti esperoan. Eta 19 urte betetzerako saldu nituen hogeita hamabortz ardi. Milana pzta. 35.000 pzta. Diru aunditz zen.

Non bazkatzen ziñuzen?

Mendien eta aal nun tokien. Negureko belarra bildu eta udan, berriz, beti mendien.

Hemengo artzaiek beren ardiek hartu ta *Bidekorri*, *Putzutaa*-eta yoaten ziren, gora. Eta nik beitixagotik, bakarrik.

Ez'tute ba erraten goittiko mendi hoietan belarra fiñegoa dela?

Ez'takit zer den, baño nik kusten nittuen hemen hazten ziela hobiak goittien baño.

Eta nola oartu ziñen hortaz?

Kusiz, kusten...Bein erosi nittuen ardi batzuk Arraitzen eta usetu ziren mendien, beti. Eta nik yarri nion kondizioa: erran nion, nik erosiko ttiet ardiek baña baldin badire hamar bat edo urrexak, hire ardietara botatzeko. Eta berak, -Konforme!

Eta nik in nuen proba orduen: kusi biar diet ia goitti hazten diren hobeki edo nere tokien. Eta gero, udazkenean, karri zittunian, naasi nittuen neriakin eta buf, neriak amak haien ondoan. Eta nik nere baitan: Hemen ongi niagok!Ez nittuen nere ardiek iñoiz eaman toki goretara.

Eta zer itten ziñuen esniakin?

Deitzi bordan ardiek eta, gero, garrafetan karri itxera bizkarrez, gero astoa erosi-ta, astoz. Esne alde polite kartzen nuen, berrogei litro eta gehiago igual. Eta gazta intzalea ama. Itxan yaten genuen eta sobratzen zena, saldu. Artzai guziek gauza bera.

Hor bordan aittu ziñen lanian, baña gero herrira torri ziñen.

Bai, itxan kontra in nuen artegi berrie, baratxian. Eta neguko kartzen nittuen erditzia. Erdi bear zute-laik, horrara. Eta gero, axuri batzuk saldu, eta altzi-



Joxe Mielek egin zuen etxea

ñako zienak bordara.

Tratoan ere ibilli ziñen.

Bai, pixko'at. Lendaxien ez, gerorago. Erosi gure aldedian ta saldu frantsai.

Zu ezkibel samarra izanik, tratante.

Bai, raso ezkibela, baña, pixke-pixke...Hor mane-jatzen nitzen majo. Paperik gabe atratzen nuen nik bizie primeran.

Deizteko makine ere paatu ziñuen. Zenbat urte ziñuzen?

Bai, bai, deizteko makine. Urtiak? Hogeitamar urte-tik goiti benpin.

Eta nola gogoratu zitzaizun makine paatzia. Ordun makine gauze harrigarrie zen.

Bai, bai, hala zen. E'tzuen iñork ere. Eta gero ardiei esponjak paatzen ta'ere leendaixko hasi nitzen.

Zer gertatu zitzaizun makinarekin?

Bai, leenbixkoak, eta problemak, haundiek. Ez ziren ongi montatuak. Mamitisa harpatzen zuten ardiek. Ta kendu eta, berriz, eskuz deitzi biar. Hori bai, ni tente, ardiek deizteko. 54 sartzen ziren aldi bakotzeko.

Gazta itxan itten, baña noizpait hasiko ziñen esnia saltzen.

Bai, ordun ez baitzen esne fabrikeik ta e'tzen yeus. Eta gero hasi zielaik fabrikek deitzi eta saldu. Eta hola hasi giñen gero ta geiago, esniak maten baitzuen diru pixk'et.

Zenbat saltzia allatu ziñen?

Denbora haietan, ez'takit zenbat. Eun ta berrogeita hamar bat edo. Ordun polliki zen.

BIZI ALDAKETA HAUNDIE, HOBERAKO.

Zu zorienttsu izan zara, hamika urte bete'ezkeoz, beti zorienttsu.

Bai, lehengo artzaiei lagundu, gustora gaña. Nik orduen bai'nuen abildadia. Nai zireten neri! Ez'ta ongi nik erratia baña. Eta ni mendien egon, kieta beti. Gustora, gustora. Disfrutetzen! Ni beti pozik bizi izandu naiz.

Nor ziñuzen artzaiek hemen?

Arbillanak eta, *Probintzienekoak*... (Iraizozkoak) Eta Alkozkoak e'bai: *Oianeko* itxeko Juan Martin Ariztegi-ta. Hure arzaie izandu zen, artzai ona. Harrekin ikasi nuen polliki. Bera e'tzen oartzen baño nik erreparatzen nuen harek ze itten zuen. Hola, oartu!

Zu oso izue, lotsatie ziñen. E'tzizaizun gustatzen herrien ta, tabernan ta, bestak eta...

Beti eskapo plazatik, jo, jo! Egie. Beti mendie, beti mendie.

Baña noizpait, buelta eman ziñuen. Aittue dizut Afrikek baduela kustekoa.

Berrogei urte izain nittuen. Jose Olague, Lozenoa, arront lagune zen, joño, donante de sangre giñen biek, eta harrek: hi, yoan biar diagu Afriker! Eta harrek animetu. Ta yoan nitzen eta e'tzitzairen penatu. Ikasi nuen aunditz. Ordun ireki nitzen.

Eta, zure bizitzek aldaketa haundie.



Orduen konturatu nitzen, hemen bezala iñon ez! Uste nuen bazter guziek hobiak ziela, baña buelta in nuelaik, erran nuen, paraisoa hemen ziok, eta hementxe itxa in ta fuera!

Herriko itxeik elegantena, denbora hartan oroitzen naiz nola Alkotzen artzai batek itxe haundi' bet in zuen...famatu ziñen. Yendia harriturik.

Elegantena ez, baño, bai, bai, itxa in nuen. Arront kontent. Oroain Jabier illoba bizi'de.

Itxia itten aittu ziñen?

Bo! Azkar! Kisuskillek herrikoak izan nittuen. Gofitarrak, Esperanzitan anaiek.

Baña ez ziñen bizitzen yarri.

E'nitzen yarri, ez'bainitzen espostu ta yaus, je, je! Baña itxa nik in nuen e!

BIZITZAN BIGARREN ALDAKETA. ORAIN-GOAN ERE ASMATU DU.

Erraten duzu, gustora artzai, baña gazteik jubiletu ziñen.

Ez hainbertze! Hiruetan hogeitau bortzetan, penakin'e, yos!

Eta zergatik utzi ziñuen?

Illoba hasi zen artzai nai zuela. Utzi bia'zu bidia. Jabier da illoba.

Eta honek hartu zizun artaldia. Eta artegie.

HIZTEGIA ETA OHARRAK:

Ezkibel, izu, lotsati, beldurti, kideak dira, baina ez berdinak.

IBILKARI (Ekialdekoa) IBILTARI (G. B.) Andarin.

URRUXA: aziendetan emea dena.

ESPONJA. Ipurdien jartzen zaie botika batekin.

Ez, honek artegi berrie in zuen. Artzai ikasi baño len. Orain, atzera, haunditzen ai da. O sea, zerbait...

Berrogei urtetan zure bizitzari biurrialdi bat eman ziñion. Eta noizpait entzun dizut hirurogeietan ere aldaketa haundie izan ziñula.

Bai, beste bizitze batera pasatu nitzen. Orain trabe-siak (ibilaldi luzeak) eta hola itten ttut. Gustura bizi naiz. Disfrutatzen ai naiz.

Zu ibilkari haundie izan zara?

Bai, bai! Denbora batian! Bueno, orain'e, ez pentsa, nire lauetau hogei ta hiru urtetan...ja, ja!

Nor ttuzu lagunek, nora yoaten zate?

Hemengoak, Baztangoak, Iruñekoak...Eta toki aunditzetara yoaten gara. Gero bazkari'bet, polite, ta aldike-aldike bildotx bat edo bertze yaten dugu ta.

Hemengo mendietaik kanpo ere bai?

Bai, Gipuzkoa, Bizkaia; hona hemen fotografi bat Anboton: Hau Eraxonekoa, bertze hau *San Prudentziokoa*, hau Arraizkoa, bertze hau Erratzukoa, eta bertze bi hauek Anboto ondokoak.

Miel Joxe, muttiko izu hura gizon ausarta bihurtu zitzaigun, gizon prestua eta langile porrokatua. Gorputzez luzeska, segaila eta zimela. Txukuna lane-tan eta bizitzan. Ongi jaztea, ongi orraztea, gustuko du. Eta solasturi haundia eta ongi hitz egina. Zahartzean ere berdin-berdin segitzen du. Urte askoz Joxe Miel!

Horrela ardiak arkara jartzen dira eta urteko ia bi umaldi izaten dituzte. Berez, ardiak, udazkenean soilik jartzen dira arkara.

ARKARA EGON: Ari hartzeko prest egotea.

SEGAIL: Esbelto. Hemen sedail edo sedaille ibiltzen da.

Elektrotxaranga hamar urte betetzen ditu

Nola pasatzen den denbora. Hamar urte jada. Elektrotxaranga 10 urte bete ditu aurten, eta sanferminetan ospatu zuten. Baina zer da, bada, elektrotxaranga?



Urritzolako Aritz eta Suarbeko "Patta" talde honen partaide dira. Bitxikeria bezala, biek instrumentu berbera jotzen dute, kutxa. Kalean ordu luzez jotzen dutenez, txandakatzen dira.



Musikariak beraiek azaltzen duten bezala, "Gazte peñaren txaranga". Duela hamar urte sortu zen peña hau "zezenketei alternatiba bat sortzeko eta jai eredu desberdin baten alde". Txarangarik ez zuten eta haiena sortzea erabaki zuten, baina ez zuten hala modukoa sortu, elektrifikatua sortu zuten: "Gurdi batekin, bozgorailu handiekin eta mikrofonoak eta guzti: rock talde bat baina kalean jotzen duena. Elektrotxarangen fenomeno sortu zen, baina ez ziren lehenengoak izan.

Euskal Herri mailan, behintzat, Elektrotuna bilbotarrak izan ziren lehenak rock-punk-ska bertsioak kaleetan jo zituztenak. Gurdirik ez, baina bakoitzak motxila antzeko batean eramaten zuten haien amplifikadorea. Iruñean Elektrotxaranga sortu zenetik hamaika izan dira sortu diren formatu horretako taldeak: Iruñerriko auzo eta herrietan bizpahiru, Araban Ttek elektrotxaranga, Pelektrotxaranga, Skandalue, Orkresta txaranga... kaleetan aurkitzen ez badituzu zaila da guztien izenak jakiten...

Hedabideetatik at egon da fenomeno hau, baina hamarkada honetan gazteen ahoan egon da udako jaiak ailegatzen zirenean. Mugimendu honek bere gailurra izan zuen Bermeon 2014an "Munduko lehenengo Elektrotxaranga topaketa" ospatu zen: Euskal Herriko 6 talde desberdin elkartu ziren irai-

leko asteburu batean, herri bizkaitar hau alaitzeko intentzioarekin.

80. hamarkadan punk musika izan zen gazte-riaren behar eta egoerarekin gehien identifikatu zena. Hurrengo hamarkadetan musika honen itzala handia izan da, eta nahiz eta gizartea aldatu, punka beti moldatu da, nola edo hala. Gazteen talde askok oraindik ere jorratzen dute punk musika, baina baliteke historiara pasako dena "Do it yourself" izaera izatea: "egizu zu zeu" pentsaera. Ez da beharrezkoa sekulako musikaria izatea talde bat osatzeko, nahi duzuna aldarrikatzeko, zure ametsen alde borrokatzeko...

Milenio berriarekin batera, punk jarrerak beste pauso bat eman zuen musika eszenatik jais-tean: jaietako txarangek orain abeslariak izan zezaketen, gitarra elektrikoak, baxua... Eta nola ez, erreperitorioa aldatu zen ere: rock-punk abestiak, ska bertsioak, mexikanak...

Musikak eta gizarteak bere bilakaera izaten dute, eta jendea horiekin batera joaten da. Hedabideak beti berandu ailegatzen gara holakoetara, baina, gure ustez, hala behar du izan. Nork daki zein izanen den musika taldeen hurrengo pauso ebolutiboa, eta ziurrenik uda honetan bertan gertatzen ari daiteke, baina hori, ziurrenik, hemendik hamar urtera kontatuko dizuegu.

Orgiko basoaren urteurrenaren kronika

Uztailaren 30 eta 31ko asteburuan Orgi Basoa Aisiarako Natur gune izendatzearen XX. urteurrena ospatu zen. "Ultzamako eta Basaburuko Hariztiak" izeneko Zainketa Bereziko Eremuan sarturik dagoen gune babestu honek inaugurazio egunetik beretik bere hiru helburuak betetzen ditu, hau da, basoa kontserbatzea, ingurumeneko heziketa eta aisiarako erabilera. Urtero 40.000 lagunek bisitatzen dute basoa.



Oroitzapenen haritzaren eta Txari Eletaren kontzertuaren argazkiak.



JUAN GOÑI

Lizasoko Kontzejuak antolatuz, uztailaren 30ean, herriko bizilagun batzuek eskainitako kontzertua egin zen, eta ondoren paella gozo bat dastatzeko aukera ere izan zen. "Arratsaldean, Joaquin Araujoren gidaritzapean, Orgitik barna ibilaldi bat egiteko basoratu ginen. Arratsalde bikain hartan paseatzaile kopuru on bat bildu zen, 70 lagun inguru" antolatzaileek diotenez.

"Igandean ere aukera izan genuen Joakin Araujok errexitatu zituen olerkiez gozatzeko, eta tarteka Txari Eletak, Kontxi Eletak eta Blanca Estherrek musika kontzertua eskaini zuten". Baina, kontzertua baino lehen, paseo bat egin zuten proiektua abian jartzeko parte hartu zuten hainbat entitatetako ordezkariekin eta bere izenean parte hartu zutenekin. Lehendabiziko geldialdia oroitzapenen hariztian egin zuten; han proiektuaren hastapenetako hemerroteka eta Orgitik pasatu diren pertsonen argazkiak paratu zituzten, bizilagunenak, boluntarioenak, laguntzaileenak. "Gune horretan, proiektua egin zuen Eduardo Gonzalez gogoratu genuen poema polit batekin".

Ondoren, desioen hariztira ailegatu ziren; han, "denek basoarendako zuten desioak adierazteko postalak jarri genituen, eta paperezko zuhaitz batean gure hatz-marka, Orgikoa bezalako proiektuak denon artean egiten ditugula sinbolizatze".

Harrera gunean eskuz eta egurrez artisautzaz gozatu ahal izan zuten berrituriko koadro eta altzariekin eta kaiku eta kutxekin. Alderdi gastronomikoari dagokionez, Zubietako taloak, Aitana sagardotegia

eta Orgiko gazteak, Ezkurdi ezti eta Ultzamako ogia izan ziren.

Granja eskola poniekin eta haien dendako produktu ekologikoekin hurbildu zen. Horretaz gain, Arantzadi Zientzia Elkartearen laguntza izan zuten; hainbat narrasti eta anfibio espezi ekarri zituzten horiek poteetan sarturik, eta parte-hartzaileen artean harridura sortu zuten. Haien batera, Begoña Ojer biologo eta ohiko laguntzaileak xaboiak egiteko modua zenbait landareen ezaugarriak erakutsi zituen.

Txikienek bere tailerra izan zuten, Periko Zunzarreri (Gorrontz) esker, habia kaxak egiten ikasteko. Urteurrena despeditzeko Orgiko eta Ultzamako kamisetak egin zituzten, baita XX. urteurrenaren logotipoa eramaten zuten edalontzi berrerabilgarriak ere.

"Asteburu hunkigarria izan zen etorri ziren eta etortzerik izan ez zuten pertsonengandik jaso genuen bero eta laguntzagatik. Haietako asko, gainera, Ultzamako Bailarakoak. Asteburu ederra, benetan. Igandean 921 pertsona zenbatu ziren (pertsona kontagailu bat daukagu)".

Abuztuaren 6an, larunbata, 12:30ean, kultur programazioaren barnean, Orgin Hutsun Txalaparta taldea izan zuten. Kontzertu interaktibo miresgarria izan zen, non txalapartaren jatorria azaldu, jotzeko modu desberdinak erakutsi eta jendea parte hartzeko gonbita egin zioten. Jendea, oso pozik eta parte-hartzeko gogoarekin.

Gureak dira oihanak (3): LANTEGIETAZ



Erbetiko Etxebertzea eta bi arbola ederrak: pinua, 1939. urtean landatua. Ezkerrera pagoa, aise gazteagoa

Pulunpeko azkeneko zenbakian aritu ginen oihanetako lantegiez Satiagorekin Etxeberriarekin. Hala ere galderaren bat edo beste sartu gabe gelditu ziren. Oraingoan, Santiagori gai horretaz egindako bi-hiru galdera.

Orokietan-Erbetin noiznahi atera daiteke oihana? Hau duk, uda, udazken, negu, udalehenean?
Ez likek atera behar, baina horretaraino ez gaituk iritsi. Hemen, noiznahi.

Bai, honetan oker handiak ikusten ditut nik.

Iaz, hezea eta bustia joan huen eta oihan ateratzean kalteak handi samarrak ikusi izan nitian zenbait herritan. Ez al litzateke hobe izanen debeku batzuk jartzea?

Bai, hala izanen duk ikusia ikusiz; gu ere lehenago Iratin lantegian aritzen ginelarik, izaten huen aldi bat arbolak bota ez zitekeena: izerdi denboran. Horregatik ahal zelarik, bota eta bota aritzen hituen baina izugarriko saltsa izaten huen gero adar kentzerakoan-eta. Bota ahala, adarrak kendu eta biltzea kontratisten lanerako hobe izaten duk, gehiago enantzatzen duk eta txukunago, eta badakik, hemen baten ona askotan bertzearen kalte izaten duk.

Hire irudiz, oihana noiz atera beharko likek?

Abuztuaren azkenetik martxo bitartean, baina, badakik, eguraldiak ikusteko handia izaten dik.

Entzun izan dugu hainbat naziotan debekaturik dagoela oihan ateratzea aro bustietan. Hemen zergatik ez? Edo, zergatik bai?

Mendietako pistak

Gure mendietan askotan oker handiak ikusten dira bide eta pistetan, erabat utziak, euri ura zarrastan pistak beheara, pista zulatzen, bertako materiala arrastan eta larruturik uzten.

Santiago zuek pista asko duzue, aspaldi eginak, eta txukun samar daukazuela ikusten diat. Nola konpontzen zarete horretarako?

Aurten ultzamarrak izugarriko zura aldea atera ditek guretik. Elkarrekin bildu ea nola konpondu egindako kalteak eta, konpondu gineken ederki. Haien konforme hituen gu konforme baginen, zaborra berek jartzea, Ultzamako udaletik zaborra debalde, hemen jarria. Eta horrela, guk barratu. Laurehun tonelada baino gehiago ekarri zuten.

Urari korteak egitea eta, kontutan hartzen duzue?

Beharko! Ez diagu sobra kasu egiten askotan, baina, bai, bai, urak, pistak korteak-eta egiten ez badira, pistak hondatzen ditik. Baina herritan badakik zer pasatzen ari den, aldi bako bako jende gutxiago. Hemen auzelana pagatzen duk, baina pagatuta ere...

Pistak bi aldetara ixuria dutenean-eta, gutxiago hondatzen dituk. Zuek kontutan hartzen al duzue?

Bai, bi aldetara edo alde batera ixuria, pistak pista euri ura etorri ez dadin. Bai, horretarako badiagu tekniko bat, eta bertze gauza zenbaitetarako ere bai.

Modu on samarrean daukazue pistak. Kontent haiz.

Bai, bai. Hala ere beti gainean egoten gaituk. Joan den urtean berean, 14.000 euro gastatu genituen (gizuzin). Jendeak erraten dik, dirua non gastatzen duzue-eta, baina badakik, dirua lan hauetan hasiz geroz...

HIZTEGIA

ARO: ESTACION
IXURIA: INCLINACION

HEMENGO ESALDIA: ALDIAN BAINO ALDIAN JENDE GUTXIAGO, GEHIAGO...

MARIA JESUS MATXIÑENA, IÑIGO CIGANDA ETA JESUS CIGANDA:

“Joko olinpikoez gozatzeko aukera izan genuen”

Lehenengo aldiz parte hartu du ultzamar batek joko olinpikoetan. Larraintzarko Carlota Ciganda izan da lehena, eta Kanadan beste txapelketa bat zuenez ez da etxera itzuli. Heldu den hilabetean eginen diogu elkarrizketa.



Zuk, Iñigo, Carlotarekin bizi izan zenuen Joko Olinpikoetako esperientzia, zer moduz?

IÑIGO: Oso ongi, biok elkarrekin joatea erabaki genuen, eta ni bere caddy izatea. Han 15 egunez egon ginen, gune olinpikoan egon ginen, eta gure lehiaketaz gain, joko olinpikoez gozatzeko aukera ere izan genuen.

Pentsatzen dut lehenengo egunean ilusioz zeundetela, partida ona egin baitzuen, baina gero ilusio hori galtzen joanen zen ezta?

JESUS: Bada, bai; baina, beno, ez dago besterik, behintzat disfrutatu egin zuen, eta txapelketa gehiago egongo dira.

Pena izanen zuen berak ere ezta?

IÑIGO: Bai, beste txapelketetatik ezberdina delako, herrialdeka jokatzeko da, saria dominak dira... Baina bigarren egunetik aurrera okerrago jokatzeko hasi ginen eta ezin izan genion buelta eman, nahiz eta amaitu arte saiatu ginen.

JESUS: Oso jokalaria onak egon ziren jokatzeko eta irabazi zutenek merezita irabazi zuten. Golfa horrelakoa da, oso zaila da, eta egun guztiak dira ezberdinak.

Dominen lehiari sartzeko ideiarekin joan zen hemendik?

JESUS: Bai, oso prestaketa ona egin zuen, eta ongi egiteko gogo handiz joan zen Riora. Ez zuen elkarriketarik ere ematen, oso kontzentratuta baitzegoen txapelketa honetarako. Baina gauzak ez ziren nahi bezala ateratu, baina behintzat joko olinpikoez gozatu ahal izan dute berak eta Iñigok.

Eta Rion dena ongi joan da?

IÑIGO: Bai, jokatu baino astebete lehenago joan ginen, eta hango girora ongi moldatu ginen, golf zelaia probatu genuen, eta lo ere ongi egiten genuen. Oso ongi zegoen “villa” olinpikoa, erosotasun guztiak genituen eta ez dugu arazorik izan.

Beste kirolak ikusteko ere probestu zenuen ezta?

IÑIGO: Bai, bertan egonda denbora ere bagenuen beste kirolak ikusteko, asko gustatzen zaigu kirola. Tenisa, nesken eta mutilen saskibaloia, nesken eskubaloia -bi nafarrek parte hartzen zutela- eta igeriketa sinkronizatua. Gehiago ikusi nahi genuen, baina ordutegia murrizta zen.

Eta Larraintzartik haiekin komunikatzen zinenen?

MARIA JESUS: Bai, telefono bidez hitz egiten genuen, eta telebistan ere ikusi genituen. Nadalen partiduan adibidez bizpahiru aldiz atera ziren. Gainera, telebistan ikusteko ordutegi aldaketa deserosoa da, gauean ikusi behar genuelako, eta hurrengo egunean lanera joan... erokeria.

JESUS: Dena den, guri kirola asko gustatzen zaienez beti ikusi izan ditugu joko olinpikoak, goizeko hiruretan esnatu behar baginen ere.

Lizason golf zelaia izanda suposatzen dut txikitatik egon zaretela denak bertan, ezta?

IÑIGO: Beno, ni txikitan futbolekin aritzen nintzen; baina gero, bai, gehiago jokatzeko hasi nintzen. Carlota ere txikitatik hasi zen aitarekin, baina futbolekin ere aritzen zen, eta pilotan ere. Carlota-ren entrenatzaile izan nintzen futbolekin. Kirol guztiak gustatzen zaizkigu, egia esan, biak hemen gaudenean frontonisean jokatzera joaten gara, edo padelean, mendira, korrika egitera... Hemengo bizitza gustatzen zaio orokorrean.

Jesus zurekin golfean jokatzeko txikitatik ematen zizun egurra?

JESUS: Bada, 11-12 urterekin jada irabazten zidan. Frontonisean irabaztea gehiago kostatu zitzaion, baina irabazten dit orain. Askok gustatzen zaigu deno frontoia, ni denetan aritu naiz ere, 14 ofizio, 15 miseria!

Badaiteke... eta badezakegu Orkingoak

Zalbatenea, Bolenea, Larreakoa, Migelenea, Matxintonea, Enekonea. Horra hor sei etxe aspalditik Orkinen agertzen direnak. Euskaraz mintzatu izan da etxe horietan beti, XX. mendean euskararen gainbehera etorri zen artio. Hemen jaiotako euskaldunak ba ote dugu oraindik? Azkenekoetako bat Matxinto deitzen ziotena zen, baina neketan aritzen zen; eta ez zuen euskara batera maite. Zergatik hau dena? Nork jarri zuen Orkinen euskararen kontrako harra?



Nahiz eta gurasoek etxean ez hitz egin, ez dakitelako edo oso gutxi dakitelako, denok bat egin beharko genuke gure seme-alabei euskaraz egin dezaten eskatzeko, behin eta berriz, behin eta berriz... Nire esperientzia hori izan da behintzat, eskerrak gurasoak gainean izaten nituen! Orain nire adiskideekin euskaraz aritzen naiz. Eta orain nire umeekin gauza bera egiten dut.

Javier, zuenak ez, baina hemengo ume gehienak erdaraz ari dira. Zergatik gertatzen da hau?

Nik pentsatzen dut guraso aunditek ez dituztela hemengo eskolara euskara ikas dezaten umeak igortzen, eskola hurbil dutelako baizik. Eta gero, jakina, erdaraz ari baldin badira ere ez dira kezkatzen. Gurasoek euskararekiko kontzientzia apala dute eta, jakina... Lehenik, nik uste, gurasoak kontzientziatu behar direla.

Eta zu familia erdaldun batekoa izanik, zergatik ikasi zenuen euskaraz?

Euskal Herrian izanik eta euskara bertako hizkuntza delarik, nahi eta nahiezkoa iruditu izan zait euskaraz jakitea eta horregatik ikasi nuen. Eta ez lanarengatik, ez, nahiz eta orain, zorionez, nire lanean aritzeko euskaraz jakin behar dudana.

Alaznek eta Javierrek ahal izan dute. Badaitekeela erakutsi digute. Eta beste gainerakook zergatik ez?

Ozpinak bota komunetik eta ardo frexko beharrean gaude. Gaurkoan Orkinen topatu dugu.



Gaur euskararen aldeko batzuen bila joan gara, Migelenean egin dituzten etxebizitzetako batean bizi den familia batengana. Burlatetik etorri zen orain urte batzuk eta familia honetan euskaraz aritzen dira, bai senar-emazteen artean eta bai beren bi haurrekin ere. Eta haurrak beren artean ere bai.

Aspalditik ez da entzun izan euskaraz Orkinen orain bezainbat.

Javier Saraio eta Alazne Zigaran ditugu senar-emazteok. Eta beren bi umeak, Garazi, hiru hilabete zituenean etorri zen neskatua eta Iker, mutikoa berriz, hemen jaioa.

Herri tiki batean bizitzeak zer on eta zer txar duen, horietaz aritu gara hizketan, baina gaurko gure bisita familia euskaraz hazteaz eta honetan izaten diren gorabeheraz hitz egiteko zen, eta hala ekin diogu:

Alazne, euskaraz ariazteko haurrak zer egin beharko genuke?



Kixote bila Bi ultzamar


Iñigo Astiz eta Maite Mutuberrria ultzamarrek erreportaje serie interesgarri bat argitaratu dute. Berria egunkarian abuztuan plazaratutako artikulu sortan, Astizek Don Kixoteri buruz dihardu Mutuberrriaren ilustrazioek lagunduta. Euskarazko egunkari bakarraren webgunean irakurri ahal duzun serie honetan, Ultzamako kazetariak La Mantxara egindako "benetako" bisitaldi bati buruz idazten du, errealitatea eta fikzioari buruz hitz eginez.



Zaldun eroaren obraren ustezko herriak bisitatzean, gertatu zenaz, idatzi zenaz eta ulertu denaz idazten du iraziozarrak. Cervantesen heriotzaren laugarren mendeurrenaren harira, uda istorio "unibertsal" honen jatorrira joan ziren, Astizek dioen bezala, "Hemen abiatzen da hori dena. Tira, zehatzago esatearren, hemen nonbait".

Fikzioaren eta errealitatearen bidegurutzea da kazetariaren bidaia, eta teknika desberdinen arteko lana egiten du ilustratzaileak ere, lumaz egindako marrazkiak eta "collage" desberdinen artean Mutuberrria sortzen dituen irudiak primeran lotzen dituzte kazetariaren hitzak: "Fikzioek mugi ditzakete errealitateak. Eraiki daitezke gazteluak haizetan".

Bidean aurkitzen dituen pertsona eta pertsonai desberdinak deskribatzen ditu kazetariak, haiekin izandako hizketaldiak eta ikusitakoei buruz kontatzen digu ultzamarrek, Mantxako udako eguzkipean: "Errotatik errota- ra dabil mutiko talde bat sakelako telefono barenekin. Begiratzen diete errotei, eta buztanetik tximistak botatzen dituzten katu itxurako izakiak ikusten dituzte. Hau da Mantxa. Erraldoiak ikusi zituen hemen Kixotek orain lau mende. Hemen gurutzatzen dira fikzioa eta errealitatea. Lur onak Kixote ehizarako".



Irrealak diruditen irudiak, beste garai batetik aterata dirudien jendea, errealitatearen ispiluaren alde batetik bestera begiratzen duen istorioa dugu bien artean kontatzen dugutena. 6 egunez kaleratutako 6 testuak, udako egun haue- tarako irakurketa guztiz interesgarria iruditu zaigu. Astitzen hitzekin utziko zaituztegu: "Cervantesen kontakizunean jada ezerk ez baitu edo zuri edo beltz izan beharrik; Kixoterekin aldi berean izan daitezkeelako gauzak zuri eta beltz. Aldi berean zaldun eta zoro. Aldi berean fikzio eta errealitate. Aldi berean errota eta erraldoi".

Herri kirola berrasmutzen ari da

Ohiturak ohitura dira, eta are gehiago herri kirolean. Izan ere, joko hauen funtsa aspaldi eta ez hain aspaldi gure baserrietan egiten zituzten lanak simulatzea da, lan horiek apustu bihurtu eta plazara eramatea.



Noizbait erabakiko zuten arpana plazara eramatea, edo aizkora, edo txingak, lokotxak eta abar. Eta, beraz, galdera da zergatik ez eraman plazara bestelako lanak, oraindik herri kirol bihurtu ez direnak?

Basaburuan eta Imotzen horri bueltaka ari dira azken urteetan, eta joan zen urtean pokoiaren arrakasta izan genuen. Guztiz bestelakoa bada ere, azken urteotan aizkora saio berri bat ezagutu dugu, autoa erditik zatitzearena, eta gure bailaretako hainbat herritan ikusi ahal izan dugu hori, Xulapain- go bizilagunen eskutik.

Piketeak sartzea herri kirol bihurtuta
Beste pauso bat eman dute aurten Imotzen. Alfredo Altzuetak Muskizko kontzejuko presidenteak tresna bat asmatu du mendian piketeak sartzea simulatzen duena. Berarekin hitz egin dugu proba hau azaltze- ko:

"Bonbo bat egin dugu Muskitzen piketeak sartze- ko, eta, tresna hau genuenez, zilindro hidrauliko bat birziklatu dugu eta herri kirol berri hau asmatu dugu. Jendeari gustatzen zaio, eta saiatzen ari gara urtez urte zerbait berri egiten".

Funtzionamendua: "Bonba bat dago, olio- z betea dagoena, eta zilindrora sartzen da. Piketearekin kol-

patzean olio pixka bat ateratzen uzten du, eta zilindroa jaisten da, hau da, piketea sartuz doa. Piketeak bi metrokoak dira, eta lur- rean metro erdi inguru sartzen da; zilindroa, beraz, metro erdi jaisten da. 60 kolpe inguru behar dira piketea sartzeko."

"Zailena zilindroaren presioaren neurria hartzea izan da. Baina lur- rean bezala, lurra lehor dagoenean asko kostatzen da sartzea, eta heze dagoenean errazagoa da. Tresna honek lur lehorra simulatzen du, baina oraindik konponketa zenbait egin behar dizkiogu."

"Arrisku pixka bat ere badu, bonboa piketetik ateratzen bada eta gero bi kideen indarra ez bada berdina, gerta liteke piketeari ez ematea ongi eta bonboa bietako baten buruaren gainean erortzea, eta badu horrek."

Bost pertsonako taldeak egin zituzten Imozko xenden egunean, behin ibilbidea amaituta Muskitzen egin zuten saioan. Binaka aritzen ziren bonboarekin, eta bat bonbarekin. Errekorra 2 minutu eta 40 segundo izan zen. Latasako taldea izan zen garailea, beste talde bat Etxalekukoa zen, hirugarrena Aizarozkoa eta Larunbeko talde misto bat, emakumeak zituen talde bakarra. Atezko jendea ere baze- goen, euren bizitzan pikete pila bat sartu dutenak, baina ez zuten parte hartu nahi izan.

ZORIONAK ZUEI!



HEGOI



Araia



Bakartxo



FELIX

Arkanbelea eta **Pokemona**

Azkenaldian aldizkariaren atal hau betetzeko "inspirazioa" zuek, irakurle maiteok, ateratzen dituzuen argazkietatik lortzen dugu. Hilabete honetan bi animalia ditugu gurean: Arkanbelea eta Pokemon itxurako pinpilipauxa ezezagun baten har bitxia.

Arkanbelea, kakalardoan "idia"



Sare sozialen bidez lortu genuen argazkia eta hasi ginen ikertzen: Intsektu hau gutxitzen ari den erlikia biologikoa bada ere, Orgi basokoek konfirmatu digute gurean noizean behin halakoak ikusten direla. Espezie honek 1000 "talde" desberdin ditu, baina Euskal Herrian lau besterik ez ditugu.

Hortik entzun dugunez, basoan zaudelarik halako karraskak entzuten badituzu, baliteke hostoen artean ezkutuan intsektu handi hau egotea, zuhaitzen izerdiaz elikatzen.

Koleoptero familiakoa da, eta ikusgarria egiten zaigu dituen adar erraldoengatik, baina egia esan, bere bizitzaren zati txiki bat besterik ez du "kanpoan" ematen, 4 urtez enborren barruan eman ondoren, udan handi "bihurtzen" dira eta elikagai eta bikote bila ematen dute geratzen zaien bizitza denbora eskasa. Arrak dira adarrak dituztenak eta emeak txikiagoak dira.

Udako arratsaldeetan, zutik egiten dute hegan arrek eta zuhaitzen tontorreko hostoen artean burrunba soinua igortzen dute. Bi ar elkartzen direnean sekulako borrokak izaten dituzte, batzuetan elikagaia lortzeko eta besteetan eme bat lortzeko.

Adarrak handiak baditu ere, esan beharra dago gizakiontzat ez duela inolako arriskurik animaliatxo honek.

Apeztegi berriko Pokemona



Kontua da Jauntsarasko Apeztegi berri abuztuko arratsalde lasai batean argazkiko "bitxo" hori aurkitu zutela.

Jatorri logikoa, pinpilipauxa baten harra izatea da, kasu honetan, Deilephila elpenor bat dugu, "Esfinge morea" izenez ezaguna. Biologoek diote harraren forma arraro horren arrazoia, harrapariak usatzeko suge itxura izatea dela, eboluzio estratejia bat besterik ez. Arkanbelearen kasuan bezala, ez da batere arriskutsua. Sarean begiratzean, munduko animaliarik itsusien artean sailkatu dute.

Batzuetan aipatzen da txikitik politikak garelara eta gero "itsusten" garelara... Gizakion kasuan hala izan badaiteke ere, pinpilipauxa hau "handitzen" denean kolore biziko animalia eder bihurtzen da, eta ez suge itxurako "Caterpie" Pokemona.

Telefono mugikorrendako jolas honek bide bitxi asko ireki litzake, eta horietako bat izan liteke naturako animalia arraro batzuen ezagutza sustatzea, nor daki... bitartean Ultzama aldeko Pokemon sortu genezake, momentuz Apeztegi berrikoa badugu... Egingo al dugu?

Udan informazioaren mundua "lasaitu" egiten da hein batean. Horregatik uda oro sortzen dira "udako sugeak" deitutakoak: egun batzuetan horri buruz hitz egiteko balio duen istorio bitxi edo faltsu bat. Momentuz ez dakigu "Pokemon Go" fenomenoaren udako sugea edo bideo-jolasen aro berri bat ireki duen programa den, ikusiko dugu.

Empieza por la E
 ¿Qué es aquello cálido, afectivo, práctico, lleno de valores y beneficios, transmitido en la infancia o adquirido en edad adulta, que provoca complicidades, emociones y sentimientos positivos y cuyo uso genera disfrute y satisfacción facilitando nuestra socialización?

Eeee
eee
...

¡Está Claro! Argi dago!
euskara!
MATRICÚLATE
 Más de 30 euskaltegis en toda Navarra
 30 euskaltegi baino gehiago Nafarroan

Antolatzaileak/Organizac:
 Entidades locales con servicio de euskera
 Euskara zerbitzua duten toki entitateak

2016eko Ekaina eta Uztaila

Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

EKAINEKOAK

Ezkontzak:

ANUE

OLAGUE

Jon Iraizotz Muñoa, Olaguekoa, eta Aitziber Egozkue Iratzeburu, Etulaingoa. Ezkontza: 2016ko ekainaren 4an. Olaguen jarri dira bizitzen.

ATETZ

AROTEGI

Ion Bengoetxea Begiristain, Berriozarkoa, eta Maria Gerendiain Elizondo, Aroztegiko Txurdanekoa. Ezkontza: 2016ko ekinaren 18an. Iruñean biziko dira.

Zorionak, eta anitz urtez.

Heriotzak

ANUE

ETSAIN

Isabel Lusarreta Orradre, 2016ko ekainaren 13an hil zen, *Arriskoneko* etxeoandrea.

BASABURUA

ERBITI

Jesus Mari Gaskue Goñi, 2016ko ekainaren 27an hil zen. *Mendixiki* etxeo nagusia.

IMOTZ

ETXALEKU

Joxe Mari Okiñena Ros, 2016ko ekainaren 5ean hil zen. *Felisaeneko* nagusi zaharra.

LANTZ

Nely Calzado Iribarren, 2016ko ekainaren 14an hil zen. *Xinborneko* etxeoandrea.

ULTZAMA

GERENDIAN

Felipa Gastesi Mariezkurrena, 2016ko ekainaren 11an hil zen. Larraintzarko *Bentan* bizitutakoa.

LARRAINTZAR

Placida Iñarrea Goñi, 2016ko ekainaren 9an. *Le-karneko* alaba.

Gure oroimenean izanen zarete.



Aitziber eta Jon



Joxe Mari



Nely



Felipa



Placida

UZTAILEKOAK

Jaiotzak:

ULTZAMA

LARRAINTZAR

Roberto Ariztegi Apeztegia, Pedro Jose eta Edurneren semea, 2016ko uztailaren 13an jaioa.

Ongi etorri jaio berriari eta zorionak bere gurasoei!

Ezkontzak:

ATETZ

EGILLOR

Julio Calleja Rodriguez, Iruñekoa, eta Virginia Ihaben Oiartzun, Egillorko Etxaundikoa.

Ezkontza: 2016ko uztailaren 1ean.

Iruñean jarri dira bizitzen.

Zorionak, eta anitz urtez.



Mikel, Roberto eta Peio



Maria eta Ion

AURREKO PULUNPEAN, ATAL HONETAN, AKATS BAT ZELA ETA, ZENDUTAKO JUAN ZIAURRITZ ELIZONDOREN DATUAK SARTU GENITUEN. ATSEKABEA ADIERAZI NAHI DIOGU FAMILIARI.



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL.: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

